

IL AZALPEN PROBA • <i>Odolbidua</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Mentxu? Ni naiz, Joselu! —aldarri egin zuen beldurraizez atea zabaltze-arekin batera.

Barruan inor ez zegoelako ziurtasunak ez zion eragotzi begirada barreiatze azkar batez ustearen berrespena bilatzea. Arreta handiz mugitzen ari zen, zaratarik ez egitearren edo argia isiotu ez zuenez kaleko farolek soilik argizatzen zituztelako bazterrok. Linterna txiki bat hartu zuen sorbaldan dingilizka ekarritako zakutotik eta ezker-eskumako izpi mugimendu arina burutu zuen aurrez aurreko paretan. Pianoaren segidan zegoen atean finkatu zuen linternaren jopuntua eta bertora gerturatu bitartean pausoen kulunkak baino ez zuen lortu eskuaren dardara atean islatzea. Maratilarri eragin zion eta kirrinka mehe batek adierazi zion sarbidea giltzatu barik zegoela.

Argi gorri indarge batek erditzalez zirriborratzen zuen begietara hedatu zitzaion esparru ezezaguna, eta instintiboki makurtu zuen linternaren norabidea lurrera. Mentxuren gelako arrosek barreiatutako usain goxoaren kontrastean, gela hartan kirats itzela zegoen, hanka-usaina, izerdia eta botika-giroa. Hezetasun beroa. Arnasa sakon hartu zuen goragale iragarpina eteteko.

Berak espero baino gehiago urrutiratu behar izan zuen bista. Izkina batean, lanpara txiker bat identifikatu zuen argitasun gorrixka haren sorburu legez. "Nor dabil hor" itaun marrantatua entzun zuen. Linterna goratu zuen apurka eta berari esker ekin zion aurrean zituen objektuak zehatzago identifikatzeari.

IL AZALPEN PROBA • <i>Odolbidea</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Txalupa batek hurbiltzen zituen boxeolariak zegokien borroka-esparrura eta Joselu ere hala abiatu zen gimnasiotik ezagutzen zuen Toniorekin batera. Klubeko entrenatzaile nagusia bere izkinan izatearen segurantziaz ekin zion borrokari. Aitak emandako azken aholkua gogoratu zuen, irudika egik jendea hiri begira dagoela eszenatoki batean legez, aktore baten gisa joka egik, txukun-txukun, dena pelikulan hartzen ari den kamera baten aurrean bahintz moduan, indarra baino inportantea baita dotorezia.

Zartada gutxiko borroka izan zen estreinakoa. Indarrak dosifikatzeko aholkuak ailegatu zitzaizkien etengabe izkinetatik. Epaileek puntuaketan Joselu izan zela garaile erabaki zuten, eta antzeratsu jazo zen hurrengo bietan ere. Borroken arteko tartea gero eta laburragoa izaten ari zen, hasieran hogei minutu izan zirenak hamarrean gelditu ziren, eta atsedenaldirako une horiek lepoaldean toallaz puztutako txabusina jantzita pasa zituen. Ez zituen eskunarruak erantzi ere egiten eta elbarritutako mozoloa ematen zuen esku baldarrez ezin baliaturik egikera guztiak —ura edan, izerdia txukatu, haizea hartu— besteren laguntzaz burutu behar zituenean. Zerua ez zen oskarbi eta izarrak ezkutatuta zeuden hodeien atzean, baina epel zegoen gauaroa. Entzundako txalo mordoetatik bakar bat ere bere familiakorik ez zela bazekien, inor ez baitzen Bilbora etorri.